

ENPRESAREN POLITIKA

Politika honek printzipio etikoak ezartzen ditu MUGAPE-ko jarduerak zintzotasunez eta zuzentasunez gauzatu ahal izateko, eta, legeen eta eskumenetan ezarritako arautegien betekizunean MUGAPE-k bere negozioak gidatzen ditu.

Zuzendaritzak organizazio osoari helarazi nahi dio, bai gure bezeroen baldintzetan eta bai legezko- eta arauemaile baldintzetan eskuratutako garrantzia eta konpromisoa, baita ezarritako Kudeaketa Sistemaren eraginkortasun jarraiaeren hobekuntza ere.

Gure Gizarte Erantzukizun Korporatibo politikaren barruan erantzukizun ezberdinak hartzen ditugu gure gain:

- **Pertsonetikiko:** Gure enpresa-filosofia argia da: denok berdinak gara eta denok ongi tratatuak izan behar gara, modu arduratsuan, anitzean eta baldintza berdinetan. Printzipio hau hartzen dugu oinarritzat gure kode Etikoa eraikitzeko.
- **Komunitatearekiko:** Inguruzten gaituzten pertsonengandik gertu gaude. Laguntza, babes- eta lankidetzat plan ezberdinak gauzatzen dira gure ingurunean.
- **Industriarekiko:** Gure bezeroen beharrak entzuten ditugu, erantzunak ematen dizkiegu eta beraiengandik gertu gaude. Pertsonak interesatzen zaizkigu: horregatik ezartzen ditugu haiekin harreman estuak. Enpresa bezala hobetu eta hazi nahi dugu, horretarako prozesu eraginkorrak eta efizienteak ditugu erabilgarri.
- **Ingurumenarekiko:** gure seme-alabek planetaz gozatzen jarraitu dezatela nahi dugu, horregatik edozein motako kutsaduraren prebentzioa, murrizketa eta ezabapena sustatzen dugu, haren benetakoa aukerak oinarri hartuta. Baliabideen erabilera jasangarri baten bitartez ingurumena babesten dugu, arinduz eta aldaketa klimatikoari egokitzuz, eta bioaniztasunaren babesari eta ekosistemei garrantzia emanez.
- **Lan segurtasunarekiko:** Gure langile guztien segurtasuna eta instalazio eta erabiltzen diren ekipoen mantentze egoki bat bermatzen dugu MUGAPEKO jarduera garatu ahal izateko.

Ustelkeria eta eroskeria arazo etiko batean bihurtzen dira negozioak egin behar diren unean. Ustelkeriatzat ulertzen dugu, arduran emandako boterearen erabilera okerra egitea onura pribatuak lortzeko. Eta eroskeriatzat ulertzen dugu, on ekonomiko bat emango duen legez kontrako edo ezkutuan dagoen ekintza bat erabiltzea irabazi baten truke. Orokorrean, bi ekintzak elkarrekin eskutik doaz. Estortsioa, hirugarren pertsona batek mehatxupear gure segurtasun pertsonalaren aurka doan ekintza bat egitea edo ez egitea, behartzen gaituenean ematen da, edo gure edo/eta besteren ondare ekonomikoaren aurka doan ekintza bat egitea edo ez egitea behartzen gaituenean.

MUGAPEk, enpresa bezala, honakoa ziurtatzen du:

- Inolaz ere ez dago eroskeria edo/eta estortsioa baimendua. Enpresaren barruan pertsonaren bat bere lan harremanetan legez kontrako edozein motako proposamen edo presioaren bat pairatzen ari bada, erakundearen barruan edo erakundetik kanpo, berehala jakinarazi behar du. Esandako egoera hauek enpresako hirugarren pertsona baten kasuan gertatzen ari bada eta estortsio eta/edo eroskeria pairatzen ari bada ere berehala jakinarazi behar da.
- Legez funtzionario publikoei edo sektore pribatuko partikularrei eroskeriak ematea debekatuta dago (hornitzaileak, bezeroak eta orokorrean gizartea). Ezingo dugu, inolaz ere ez, ordainketa desegokiak egin, ordainketa-aginduak eman, kontratu edo enplegu eskaintzak egin, opariak, mesede bereziak, edo baliozko edozein objekturik eman.
- Ustelkeriak konpainia moduan eta bai gizarte bezala, edo ein antolamendu mailan, kalte egiten gaituela kontziente izan behar dugu. Era berean, ustelkeria eta eroskeriarekin erlazioan dauden jarrerak, MUGAPE eta gizartearentzat kaltegarriak izan arren, ondorioztat legezko zigor esanguratsuak izan ditzaketela.

MUGAPEren Jarrera Kodeak bere langile guztietatik espero den jarrera deskribatzen du. MUGAPEk bere jarduerak objektiboki, inpartzialki, etikoki eta modu egokian gauzatu ditu, aplikagarriak diren lege eta arauketa guztiak modu egokian betez eta MUGAPEk dituen Baloreen arabera. Bere jarduera komertzialaren errendimenduan, osotasunak konpainiaren harreman guztiak sostengatu behar ditu, hau da, bezeroekin, hornitzaileekin, komunitateekin eta langileekin elkarren artean. MUGAPEko langileengandik estandar altuenak eskatzen dira jarrerari, konpromisoari eta etikari dagokionez eta konpainiaren barruan euren ardurak betetzeko garaian. Langileek ez dute parte hartuko zintzotasun, inpartzialtasun edo konpainiaren erreputazioaren aurka zalantzak eragiten dituzten jarrera edo jardueretan, edo, modu batean ala bestean, konpainian egoera deserosoak eragiten dituztenetan.

MUGAPEn ardura garrantzitsu bat daukagu gure instalazioetan gertatzen diren gertakari larriei modu eraginkor eta egokian erantzuna emateko eta kudeatzeko, komunikabide argiak, sinpleak eta eraginkorrak erabiliz.

Helburu honekin, Igotze Politika garatu dugu gertakari larrien aurrean informazioaren erabilera egokia eta erreakzio azkarra bermatzeko; gertakari horiek langileen, hornitzaileen edo orokorrean jendearen osasunarekin eta segurtasunarekin lotutako gertakizunak bezala ulertuz; MUGAPEren jarduerak; hondamendi naturalak; MUGAPEren irudia edo erreputazioa, jarrera kodea ez betetzea, finantzar iruzurra besteren artean; MUGAPEk bere ardurapean duen informazioaren segurtasunaren bortzaketa inplikatzan duten aurrekariak eta/edo bezero garrantzitsuekin dituen harremanak.